

**EUSKARAGILEAK:
LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO
URRATS BERRIA**

Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAK hasieratik hartu du estrategikotzat lan-munduaren euskalduntzea eta duela hamazortzi urte sortu zenetik hainbat ekarpen egin izan ditu urrats eragingarriak eman daitezen. Finean, gure bizitzaren zati handi bat lanean ematen dugu eta beste zati handi bat besteren zerbitzuak jasotzen.

Horrela, Kontseiluaren hasierako urteetan hizkuntza-normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko indarrak biltzeko asmoz, jarduna jarri zuen abian, Bai Euskarari kanpaina hain zuzen ere. Mende berrirako akordioaren beharra aldarrikatu zuen Kontseiluak, bai eta helburu horri begira indarrak batzeko kanpaina abiatu ere.

Bai Euskarari Akordioak zehaztu zuen Kontseiluak hartutako norabidea eta akordio horretan euskara hirugarren mila-urtean bizi eta gara zedin gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi izan zuen. Orduko erritmoan, epe oso luzean edota agian burutuko ez litzatekeen normalizazio-prozesua azkartu beharra islatu nahi izan zen.

Prozesu horren gakoa gizarte estamentu guztiak bertan inplikatzeko zetzala uste zuen Kontseiluak, eta Bai Euskarari Akordioan Euskal Herriko gizarte-eragile nagusien euskararen

normalizazio osora iristeko prestutasuna jaso zen, guztiak protagonista izango zituen esku-hartzeko prozesu ireki batean eta beharrezko izango ziren neurri normalizatzaileak adosteko konpromiso argiarekin.

2000. urtean, Kontseiluak Bai Euskari Akordioaren Plan Estrategikoaren prestakuntzari ekin zion. Horretarako, Bai Euskarari Akordioaren sinatzaileekin batera plangintzaren definizioari ekin zitzaion.

Sektoreka eta lurraldeka hizkuntzaren egoera aztertu ondoren, kasu bakoitzean beharko liratekeen neurri normalizatzaileak zehaztu ziren, planean parte hartu zuten gizarte-eragileek konpromiso zehatzak onartu eta praktikan jartzeko helburuarekin.

Hortaz, Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa sektoreka garatutako planifikazioen bilduma izan zen. Horretarako, lehenik eta behin sektoreak identifikatu ziren. Abiapuntu-ko egoeraren diagnosiak desberdinak zirenez, helburu eta ildo estrategikoak ere desberdinak izango ziren. Horrela, bost lan-eremu nagusi zehaztu ziren, hezkuntza, komunikabideak, ekonomia, gizarte-bizitza eta gizarte-zerbitzuak, eta horien barruan 23 sektore.

Gainera, erakundeei prozesu horretan laguntzeko Kontseiluak beste tresna eragingarri bat abian jarri zuen Bai Euskarari ziurtagiria. Aipatu beharra dugu 2007tik aurrera proiektu horrek bere izaera juridiko propioa hartu duela, eta egun Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek 1.400 erakundetan eragiten duela.

Bestalde, tresna horietaz haratago, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bestelako proposamenak ere egin izan ditu lan munduaren euskalduntzean urratsak emateko. Hor kokatuko genuke Kontseiluko 2009ko Batzar Nagusiak onartu zuen hizkuntza-politika berri eraginkorrerako proposamena. Proposamen horretan, euskararen lege egoki baterako oinar-

riak ere zehaztu ziren, bai eta lan munduaren euskalduntzearen inguruko hainbat proposamen eta irizpide ere.

Ondotik, 2011ko Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren kudeaketa-planeko helburu estrategikoen artean jaso zen bazkideen *sektorekako lanketa eta aktibazioa bilatzea*. Bide horretan, lehenik ere aholkularitzekin¹ abiatutako lanari jarraiki, sektore honetan biltzen ziren erakundearen lan-taldea dinamizatzeko ardura hartu zuen bere gain.



KONSEILUko aholkularitza sektoreko bazkideetako ordezkariak "Lan mundua euskalduntzeko adierzapena" aurkeztu zuten 2013ko ekainean

Jakin bagenekien merkatu lehiari murgildutako erakundearen aldetik halako ariketa bati heltzea ez zela erraza izango. Ariketa emankorra izango bazen, zintzotasuna eta elkarrekiko konfiantza izatea eskatzen zuen.

¹ KONTSEILUko aholkularitzen sektorea honako eragile hauek osatzen dute: AHIZE-AEK, ARTEZ, ELHUYAR, EMUN, IBERBA eta Ziurtagiriaren Elkartea.

Sakoneko galderak erantzutea eta elkarrizketa nahiz adostasuna lantzeko jarrera eskatzen zuen. Aholkularitzek modu egokian, erantzukizunez hartu zuten erronka. Ariketa horren bidez marraztutako estrategiak eta aholkularitzek abiatutako lankidetzak ekarri gaitu prozesu hau burutzera.

Abiapuntua

eusko Jaurlearitzak 2011ko urtarrilean argitaratutako “Euskara: erabilera, jarrerak, politikak” txostenean hainbat datu interresgarri jaso ziren:

- Hamar herritarretik zazpiti (%72ri) ezinbestekoa iruditzen zaio jendearen aurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egitea.
- Proporzio berak (%69) EAEn lan egiten duten funtzionario guztiek euskara ikasi beharko luketela uste dute.
- Ildo beretik, are gehiago dira kontsumitzaile eta erabiltzaileek saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko eskubidea dutela diotenak, %81 hain zuzen ere.
- Eta are gehiago dira, %85 hain zuzen ere, gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan euskara jakiteak aukera gehiago ematen dituela uste dutenak.

Horrela, herritarren nahi horri erantzunez, ehunka, milaka enpresa txiki, ertain eta handik euskararen aldeko hautua egin dute beren egunerokoan. Horietatik askok, ehunka enpresak, euskara normalizatzeko planak jarri dituzte abian.

Euskara-planen mapa eta Bai Euskarari Ziurtagirien ebaluazioa aztertuta, esan dezakegu, egoera zailenean ere enpresa askok beren burua euskalduntzeko eta euskaraz jarduteko ahaleginari eutsi diotela. Urtez urte gainera, enpresa berriak gehituz joan dira bide horretan.


Gero eta enpresa gehiago ohartu da, bezero euskaldunengana heltzeko, gizarte erantzukizunez jokatzeko, euren langileak motibatzeko eta inguruneari balio erantsi bat eskaintzeko, euskaraz lan egiteko urratsak emateak euren negozioak aberasten dituela. Are gehiago, asko ohartu dira produktu eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeak euren negozio-aukerak handitzen dituela. Izan ere, bezeroarengandik hurbil jartzen ditu euskarak, eta, horrenbestez, bezeroak fidelizatzeko nahiz berriak lortzeko tresna izan daiteke. Gainera, lehiakideengandik bereizten eta lehiakorrago izaten laguntzen die euskarak.

Zenbait ondorio

prozesu horren abiapuntua aholkularitzen sektorean kokatu arren, lan munduaren ikuspegi ahalik eta osoena izateko saiakera egin zen eta arlo honen euskalduntzearen jomuga izan da ipar nagusia.

Argi dago lan mundua euskalduntzea ez dagoela zuzenean ez aholkularitzen, ez eta Kontseiluaren esku ere. Lan munduaren euskalduntzean, zeresan nabarmena dute bestelako eragile edota aktore ugariak. Hortaz, ezein estrategia zehazteko garaian garrantzitsua da, lan munduaren euskalduntzeari begira zeresana duten aktore horiek identifikatu eta ezagutzea.

Kontseiluaren baitako aholkularitzen estrategia bateratzeko garaian, argitu beharreko gaia izan zen, beraz, zeintzuk ziren lan mundua euskalduntzeari begira, aintzat hartu beharreko aktoreak eta horietako bakoitzak zein funtzio bete beharke lukeen. Jarraian duzuen osatutako aktore nagusien mapa:



Lan mundua euskalduntzeko aktore nagusien mapa

Argi dago horiek guztiek izaera, funtzio eta pisu espezifiko desberdina dutela lan munduaren euskalduntzearen ikuspegitik. Hori aintzat hartuta, lan munduaren euskalduntzeari begira euskalgintzatik eragin beharreko multzo nagusiak zeintzuk ziren aztertu zen.

Horren emaitza, ondorengo lau multzoak definitzea izan zen:

- Enpresariak
- Sindikatuak / langileak
- Bezeroak / kontsumitzaileak
- Administrazioa

Hortaz, multzo horien baitan kokatzen diren eragileen posizionamenduan, jarreretan eta portaeretan eragitea behar-beharrezkotzat jo zen lan munduaren euskalduntzean urrats esanguratsua emango bada.

Horretarako, aholkularitza-sektoreak eta oro har Kontseilua-ren baitan bildutako euskalgintzak zein lan-ardatz edota zein gida-lerro garatu beharko lituzkeen aztertu zen.

Lan-ardatz horien artean ondorengoak nabarmenduko genituzke:

- Lan munduko sektorea euskalduntze-prozesuaren inguruan egituratu beharra.
- Enpresa traktoreak aktibatu eta lan munduaren euskalduntzean enpresa hauek lidergo maila bat euren gain hartu beharra.
- Langileen eta kontsumitzaileen artean, euskaraz lan egin nahia eta euskaraz kontsumitu nahia, hurrenez hurren, barneratu beharra.
- Lan mundua euskalduntzeko corpus juridikoa hobetu beharra.

2013ko ekainaren 13an Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUAK lan mundua euskalduntzeko konferentzia antolatu zuen Arrasateko Garaia berrikuntza-zentroan. Konferentzian lan eremuaren euskalduntzean zutabe diren lau eremuetako ordezkariak izan genituen, hain zuzen ere, instituzioak, enpresak, kontsumitzaileak eta sindikatuak eta bertan iritziak jasotzeko aukera izan genuen.



2013ko ekainaren 14an antolatu zuen Kontseiluak Arrasaten lan-mundua euskalduntzeko konferentzia

Konferentzia horren ondorio gisa, Kontseiluak “Lan Mundua Euskalduntzeko Adierazpena” izeneko dokumentua aurkeztu zuen, eta bertan eremu sozioekonomikoaren euskalduntzea urrats eragingarriak egiteko bide-orria zehaztu zuen.

Lan munduaren euskalduntzean urrats esanguratsuak ematea beharrezkoa dela, garaia iritsi dela eta posible dela pentsatzen dugu. Ezin da ahaztu lan munduaren euskalduntzeak herritarron eguneroko bizitzan duen eragin luzezabala. Bertan langile bezala igarotako orduengatik edota lan mundutik datozkigun zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile izateagatik, sakoneko eragina du lan munduak gu guztion eguneroko bizitzan eta hizkuntza jardunean. Hala-ber, inoiz baino euskaldun gehiago eta formatuago dago gure herrian.

Argi dago euskalgintzak bere kaxa ezin duela lan mundua euskalduntzea lortu. Halere, gure ustez, helburu hori lorgarria da lan munduaren euskalduntzean zeresana duten eragile nagusien, enpresarien, langileen, sindikatuen, kontsumitzaileen eta administrazioen laguntzarekin.

Lehen urratsa: euskaragileak

lehen esan bezala, lau eragin-gune aurreikusi ziren lan mundua euskalduntzeko adierazpenean: enpresariak/enpresak, langileria/sindikatuak, herritarrak/kontsumitzaileak eta administrazioa. Eta lanari albait azkarren ekitearren enpresarien/enpresen eremua jorratzeari ekin zion Kontseiluak.

Enpresei dagokienez, argi dago enpresa guztiek kudeatzen dituztela hizkuntzak inplizituki edo esplizituki. Lan-tresna izaki enpresek ezinbesteko dute hizkuntzen kudeaketa. Kudeaketa hori egiteko modurik egokiena enpresen baitan hizkuntzen kudeaketa ere kokatzea da. Horretarako, beharrezkoa

Enpresen euskalduntzean aurreratuta dabiltzan hainbat enpresarekin harremanetan jarri ginen eta *Euskaragileak* enpresa batzordea sortzea proposatu genien Hainbat enpresak eman zioten erantzun baikorra deialdiari eta horrela, 2014ko irailean martxan jarri zen batzordea. Gaur egun ondorengo enpresek parte hartzen dute: *Batz, Cikautxo, Eika, Ekin, Elay, Fagor, Goizper Group, IMH, Irizar, Matz-Erreka, Mondragon Unibertsitatea Eskola Politeknikoa, Mondragon Korporazioa* eta *Orkli*.

Izendapenak ere badu bere arrazoia, izan ere, *egiletza* horrek lanbide bati, ofizio bati dagokion adiera duelako. Enpresa horiek piezak, makinak... eta bestelako gailuak edo zerbitzuak ekoizten dituzte, baina, euskara eta euskararen normalizazioa ere ekoizten dute euren enpresetan. Horregatik dira *euskara egile*. Ez hori bakarrik, lan hori euren enpresatan egiteaz gain, gizarte erantzukizunaz jabetu eta inguruan ere eragiteko erabakia hartu dute. Hor kokatzen da hein handi batean batzorde honen funtzioa.

Enpresen euskalduntzean aurreratuta egon daitezkeen enpresek beste urrats bat eman dezaketela uste genuen, kanpora begiratu eta azken urteotan hainbeste aipatzen den enpresaren gizarte erantzukizunetik, euskararen normalizazioan eragile izan daitezkeela ikusi genuen. Alegia, denek erabiltzen eta kudeatzen dituzte hizkuntzak egunerokoan eta hori modu batera edo bestera egiteak, guztiak bihurtze gaitu norabide bateko edo besteko eragile. Hortaz, haien ibilbideak aintzat hartuta, lan-munduaren euskalduntzean urrats berriak emateko aukerak zabaldu eta eragin zitzaketela ikusi genuen.

Batzordearen lehen egitekoetako bat bere buruari funtzioa ezartzea izan zen. Honela bada, bost funtzio zehaztu zituzten.

1. Eragile aktibo izatea, lan-munduaren euskalduntzean zeresana duten beste eragileen hizkuntza-politiketan eragiten saiatuz.
2. Eredugarri izatea. Enpresa euskaragileak eginiko ibilbidea partekatuz ezagutza aberastea eta enpresa-euskaragile gisa, eredugarri izateko eta euskararen normalizazioaren ikuspegitik, egokienak diren portaerak izateko 'erantzukizuna' betetz.
3. Enpresen arteko sinergiak sustatzea.
4. Enpresa berriak erakartzea bitartekari eta sustatzaile izatea.
5. Enpresa-euskaragileak eginiko bidea balioan jartzea, onurak erakustea eta prestigioa ematea.

Are gehiago, 2016rako ekinbide nagusia ere definitu genuen: Batzordean bildu diren enpresek erabaki dute, haien jarduera euskaraz garatzeko eta lan-munduaren euskalduntzean laguntzeko ere, urrats garrantzitsua izan daitekeela, haien hornitzaile nagusiei zerbitzua euskaraz jaso dezagun eskaera luzatzea. Horrela, komunean izan ditzaketen hornitzaileekin prozesu bat hasiko dute eurek ere zerbitzua euskaraz jaso dezaten konpromisoak hartu eta urratsak eman ditzaten. Modu horretan, guztiok irabaziko dugu: enpresek zerbitzua euskaraz jaso, hornitzaileek euren zerbitzua eta kalitatea hobetuaz eta gizarteak oro har lan-munduaren euskalduntzean urrats berriak emanez.



Euskaragileak batzordeko eta Kontseiluko ordezkariak

Zalantzarik ez, urrats ausartu egin dutela enpresa horiek guztiek, eta lan mundua euskalduntzeari begira eredugarria izango dela. Halere, ez da nahikoa. Kontseiluan argi dugu beste zutabeak astintzen ere hasi behar dugula: langileak, sindikatuak, enpresariak, kontsumitzaileak, administrazioak... Pozik gaude lehen zutabea mugitzen hasi bezain pronto, bidaide berriak aurkitu ditugulako lan munduaren euskalduntzean, eta horrexegatik, Euskaragileak batzordeari gure laguntza guztia eskainiko diogu. Dena den, espero dezagun, berandu baino lehen, aipatutako beste eremu horietan ere horrelako ekimenak abian jartzea. Finean, berriki utzi gaituen OSKORRI taldearen eta horrenbeste aldiz kantatu dugun abestia betetzerik besterik ez dugu nahi: *Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta horretara goaz.*

2016ko urtarrilaren 21ean

Paul Bilbao Sarria